


# GARBIGAILUA

ENBATA Aldizkari Bizià



## Fitxa azkarra

Izenburua

ENBATA- Garbigailua

Pieza *eszenikoaren* Iraupena

45 minutu ingurukoa

Piezaren osteko debatearen iraupena (nahi duenarentzat)

15-20 minutu ingurukoa, desmuntaian.

Interpreteak

3 dantzari eta zuzeneko musikari 1

Publikoa

Gazte eta helduentzako publiko orokorra

Espazio *eszenikoa*

Espazio malgua: antzokiak, arteoak, kultur etxeak nahiz bestelako espazio  
alternatiboak

Premia teknikoak

Argiztapen sistema sinplea 220v 4 entxufe, teloi beltza eta soinu ekipoa. Material  
tekniko guztia konpainiak berak eramaten du.

**Katxeta:** 1400 €. Gure interesa dantza garaikidea espazio alternatiboetara eramatea  
denez, baldintzak hitz egin eta egokitu ditzakegu. Gure helburua dantza beste  
espazio batzuetara hurbiltzea da.

**Estreina:** Jatabe (Bizkaia) 2026ko Ekainaren 21ean

**Harremanetarako:** [enbata@enbatabadator.eus](mailto:enbata@enbatabadator.eus)

[www.enbatabadator.eus](http://www.enbatabadator.eus)

## Zer da Garbigailua?

Garbigailua dantza garaikideko eta antzerki fisikoko pieza bat da, memoria kulturalaren, sormenaren eta teknologiaren inguruan gogoeta egiten duena, modu ironiko eta poetikoan.

Zientzia fikzioa, satira eta euskal folkloreko irudiak nahastuz, galdera bat planteatzen du: zer gertatzen da gure erreferentzia kulturalak desagertzen direnean?

Erzenan, hiru zientzialarik oroitzapenak ezabatzeko makina bat aurkezten dute, inspirazio "berri" baten bila. Dantzari bat erabiltzen dute esperimenturako, baina memoria ezabatu ahala, kontrakoa gertatzen da: iraganeko irudiak eta folkloreko aztarnak berriro agertzen hasten dira, eta ezabatzean bakoitzak erresistentzia ezberdina erakusten du.

Esperimentuaren gorabeheren ondoren, zientzialariek sistema are aurreratuago bat aurkezten dute: robot bat, edozein memoriatz eta mugimenduz hornitua, dantza "perfektua" egiteko gai dena.

Eta galdera geratzen da airezan:  
zer geratzen zaio arteari memoriarik gabe?

TEAS/ER: <https://youtu.be/duagRvDPVuQ>

## ENBATAri buruz

ENBATA - Aldizkari Bizia 2023an sortutako konpainia da, dantza garaikidea, antzerki fisikoa, zuzeneko musika eta euskal folkloreko pertsonaien iruditeria uztartzen dituen, gaur egungo gatazkak eta gaiak gorputzera ekartzeko.

Bere lanetan tradizioa ez da museo bateko objektu geldia, baizik eta gaur egungo errealitatea pentsatzeko tresna bizia: **folklorea aktibatzen da, ez erreproduzitzen.**

ENBATAren jarduna bi ardatz naguritan egituratzen da:

batetik, **emanaldi eszenikoa**, eta bertetik, **bitartekaritza-prozesua**.

Alde batetik, piezek –Enbata Urraska, Mamu eta Garbigailua– dantza garaikidea, antzerki fisikoa eta musika uztartzen dituzte, euskal folkloreko iruditeriatik abiatuta gaur egungo gaiak lantzeko. Lan hauek espazio ez-konbentzionaletan garatzen dira, publikoarekiko hurbiltasuna eta esperientzia zuzena lehenetiz.

Bertetik, bitartekaritza proposamena sorkuntza-prozesuaren parte integrala da. Muntaketa eta desmuntaketa ez dira soilik fase teknikoak, baizik eta eszenaren parte bihurtzen dira. Horien bidez, arte eszenikoen atzean dagoen "ezkutuko lana" agerian jartzen dugu: entregu-prozesuak, ideien garapena, eszenografiaren eraikuntza eta elementu teknikoen funtzionamendua. Horrela, ikuslea ez da kontrumitsaile paribo bat, baizik eta sorkuntza-prozesuaren parte aktibo bihurtzen da.

- 1) Enbata Urrarka. Gure sortze prozesuaren inguruko hitzaldi performatiboa da. Bertan inaufeitako erregea, hartza eta langileen mozorroa agertzen dira eta pertsonaia horiek egungo energia transtizioa, genero arrakala eta imigrazioaz nola aritu daitezkeen esploratzen dugu:

<http://www.youtube.com/watch?v=IZ7GNkGxdBY>


- 2) Mamu: artistak paitzen duten esplotazioa eta autoesplotazioaren inguruko laborategia izan zen:

<http://www.youtube.com/watch?v=8pzKDKR6Eao>

Bi lan hauek ENBATAren ibilbidearen oinarriak ezartzen dituzte: espazio ez-konbentzionalak, publikoarekiko hurbiltasuna eta folkloreak berraktibazio garaikidea.

Testuinguru horretan kokatzen da *Garbigailua*, konpainiaren ibilbidean beste pauso bat emanez, memoria, sormena eta automatizazioaren arteko talkan sakontzen duen pieza gisa.







## Ardatz Poetiko

Garbigailua piezak galdera paradoxiko bat planteatzen du: zer nolako arte garaikidea sortzen da memoria kulturalik gabe?

Memoriaren galera ez da hutsune soil bat; erreferentzia-sistemaren desagertzea da. Horrek ondorio zuzena du: gaur eguna ulertzeko eta izendatzeko gaitasuna bera kolokan jartzen da. Izan ere, memoriarik gabe ez dago konparaziorik, eta konparaziorik gabe, errealitatea bera lausotu egiten da.

Piezan, dantzari bati lobotomia kultural bat egiten zaio: bere memoria ezabatzen da, arte garaikidea sortzeko baldintza gisa.

Abiapuntua ironikoa bezain bortitza da: sormena "garbitu" behar dela, erreferentziarik gabe, hutretik sortzeko. Tradizioa zama bihurtzen da, eta memoria oztopo.

Baina operazio horrek ondorio paradoxiko bat dakar.

Memoria ezabatzean, dantzaria ez da arkatzen – deslotu egiten da. Bere gorputzak jada ez du non euri: ez dago irudirik, ez dago erritmorik, ez dago konparaziorik. Horrek bere errealitatek urruntzen du. Izan ere, gorputza ez da neutrala: ikari duena da, jasotakoa da, metatutakoa da. Memoriarik gabe, gorputza ez da libre; gorputza huts bihurtzen da.



## Lantzen diren Gaiak

*Garbigailua* gaur egungo kezka naguri batzuekin zuzenean konektatzen duen pieza da:

- **Memoria kulturala eta historiaren irakurketa**  
Memoria ez da neutroa: historiaren interpretazio desberdinak eraikitzen ditu. Memoriarik gabe, ez dago konparaziorik, eta oraina lausotu egiten da.
- **Memoriaren politizazioa eta ahazte deliberatua**  
Ahazteak ez du soilik iragana ezabatzen: herri mugimenduak eta borroka kolektiboak ere lausotzen ditu.
- **Memoria kolektiboa eta artistaren erantzukizuna**  
Artistak memoria kolektibo baten gainean sortzen du. Harreman horrek definitzen du zer arte eta zer iruditeria sortzen den.
- **Adimen artifiziala eta sormenaren automatizazioa**  
Makina eta robot dantzaria dira gaur egungo sormen industrializatuaren metafora.
- **Inspirazioaren mitoa**  
Inspirazioa ez da hutretik sortzen: aurrez existitzen diren irudien eta esperientzien emaitza da.
- **Memoria kulturala vs. garaikidetasuna**  
Benetan garaikide izateko iragana baztertu behar al da?
- **Folklorearen berrirakurketa**  
Tradizioa ez da erreproduzitzen: gaur egungo galderen erdian berraktibatzen da.
- **Artearen merkantilizazioa**  
Edukiaren ordez efektua nagusitzen denean, artea kontsumo objektu bihurtzen da.

## Formatu eta baldintza teknikoak

*Garbigailua* mugikortasunerako sortutako pieza da, formatu alternatibo eta autonomoan funtzionatzeko diseinaturik, espazio anitzetara egokitzeko gaitasunarekin.

## Espazioa

Erzenetoki malgua. Antzoki, kultur etxe, gaztetxe eta espazio alternatiboetarako egokia.

Kutxa beltza egiteko aukerarik ez badago, ENBATAk teloi beltz propioa eramatea du.

## Erzenografia

Atrezzo elementu sinpleak erabiltzen dira, eta soinu zein argi mahaia makina retrofuturista baten moduan integratzen da erzenografian.

## Argiztapena

10 Par LED fokurekin lan egiten da.

Argiztapena erzenetik bertatik kontrolatzen da: antzezleek beraien manipulatzeko dituzte elementu argizatzaileak, koreografiaren parte bihurtuz eta espazio desberdinak sortuz.

Ez da beharrezkoa teknikari espezializaturik.

## Soinua

Soinu sistema propioa eta zuzeneko musika erabiltzen dira, erzenografian integratuta.

## Muntakia

Formatu arina eta autonomoa.

## Proposamen artistikoa



ENBATAk dantza garaikidea, antzerki fisiko, testua eta zuzeneko musika uztartzen ditu. Ez du folkloreaken pausoak kopiatu edo hibridatu nahi; aitzitik, folkloreako pertsonaien logikatik eta gorputz-irudieratik abiatuta gaur egungo hizkuntza erzeniko propioa garatzen du, **umore absurdo eta ironia zorrotzaren bidez, Monty Pythonen unibertsoa gogora ekarriz.**

*Garbigailua* piezan, gorputza da memoria gordetzen duen lekua; eta gorputz hori hurtu nahi denean, iraganak berriz ere tokia hartzen du. **Tentsio horrek, serioaren eta absurdoaren arteko talkan, sortzen du piezaren indar dramatiko eta bisuala.**



## Bitartekaritza-proposamena (Hautazkoa)

Garbigailua piezaren baitan, bitartekaritza ez da jarduera osagarri bat, baizik eta proposamen artistikoaren parte integrala. Helburua da arte eszenikoen atzean dagoen "ezkutuko lana" agerian jartzea eta publikoarekin harreman aktiboago bat sortzea.



Horretarako, muntaketa eta desmuntaketa prozesuak eszenaren parte bihurtzen dira, ikusleek zuzenean ikusi ahal izan dezaten nola eraikitzen den pieza: eszenografia, argiztapena, soinua eta objektu bakoitzaren arazoia eta zentzua azalduz. Prozesu horren bidez, ikuslea ez da kontrumitzaile pasibo bat, baizik eta sorkuntza-prozesuaren lekuko eta, neurri batean, parte-hartzaile bihurtzen da.


Gainera, tokiko komunitatearekin harreman zuzena sustatzen da, bereziki gaztetxe eta espazio autogestionatuetan, non bertako jendeak muntaketa eta desmuntaketan laguntzen duen. Horrela, arte eszenikoen ekoizpenaren dimentsio kolektiboa eta materiala azaleratzen da. Prozesua dantzarien arteko elkarrizketa moduan hasten da, eta pixkanaka ikusleei zabaltzen zaie.

### Debaterako gaiak

Emanaldiaren ondoren, publikoarekin elkarrizketa irekia proposatzen da, honako gai hauek ardatz hartuta:

- Zer da "ikusten ez den" lana arte eszenikoetan?
- Nola eraikitzen da pieza bat entreguetatik eszenara?
- Zer rola du memoriak gorputzean eta sormenean?
- Posible al da sorkuntza "hutsetik" egitea? Zein erantzukinsun du artea memoriarekiko?
- Zer da kendu edo ahaztu nahi duguna kulturalki, eta zergatik?
- Nola eragiten du teknologiak gaur egungo sormenean?
- Zer desberdintasun dago antzokiko eta espazio alternatiboetako esperientzien artean?
- Zer paper izan dezake publikoak sorkuntza-prozesuan? Kontrumitzailea ala parte-hartzailea da?







## Fitxa artistikoa

**Antzezleak:** Beñat Urrutia Pujana, Ainhoa Urandizaga Estarloo, Manu Gaigne Beobide, Olatz Egia Canton

**Sortzaileak:** Beñat Urrutia Pujana, Ainhoa Urandizaga Estarloo, Manu Gaigne Beobide, Olatz Egia Canton, Rafke Van Houplines

**Testuak:** Beñat Urrutia Pujana, Ainhoa Urandizaga Estarloo, Manu Gaigne Beobide, Olatz Egia Canton

**Musika:** Manu Gaigne Beobide

**Jantzi/erzenografia aholkularitza:** Xabier Mujika

**Proiektuaren zuzendaritza eta ekoizpena:** Beñat Urrutia Pujana

**Ekoizpen eta zuzendaritza artistikoa:** Rafke Van Houplines

**Komunikazioa eta sare sozialak:** Rafke Van Houplines

**Irudi korporatiboa:** Alaiondo Estudio

**Argazkiak eta bideoak:** Etanowski



## Sare sozialetan bideoa

[https://www.instagram.com/enbata\\_?igsh=MTBkaTAXOWJkNjVqcQ==](https://www.instagram.com/enbata_?igsh=MTBkaTAXOWJkNjVqcQ==)



## Teleserra

<https://youtu.be/duagRvDPVuQ>

## ENBATATARRAK

**BEÑAT URRUTIA PUJANA,**  
*Jatabe (1995)*

*Proiektuaren zuzendaritza eta ekoizpena*

Dantzertin (2016-2020) Dantza gradua egin du. Kultur Kudeaketako Masterra (UOC, 2020-2022) eta Dantzako Master Ofiziala (UNIR, 2022-2024) egin ditu. Gaur egun, Euskal Herriko Unibertsitatean doktorego-terria garatzen ari da (2023-2026), euskal dantza tradizionalaren eta garaikidearen arteko sinergiak eta euskal dantzen bilakaera aztertuz. Bere ibilbide artistikoan, 2019 eta 2022 artean Dantzaz konpainiako kide izan zen, nazioarteko eta tokiko koreografoen errepertorio zabalean arituz. Besteak beste, Martin Harriague, Sade Mamedova, Vita Orojnik, Gil Harush, Hilde Koch eta Josu Mujika bezalako sortzaileen lanetan parte hartu zuen, baita Christine Hassid, Jacek Przybyłowicz, Thierry Malandain, Janis Claxton, Dafne Nierollo, Itzik Galili eta Wubkje Kuindersma bezalako koreografoen piezetan ere, sormen-prozesuetan eta biratan ibiliz. 2019an, Dantzan.eur ikertzaile-laguntzaile praktiketan aritu zen, euskal ondare eszenikoa dokumentatzeko proiektu batean. Halaber, 2018 eta 2022 artean Euskal Herrian zehar hitzaldiak eman zituen, euskal folkloreak eta sorkuntza garaikidearen arteko harremana azpimarratuz. Irakasgintzan, 2022tik Dantzertiko Teoria eta Historia departamentuan irakasle da. Horrez gain, UNEDen euskal dantzen inguruko bi ikastaro teoriko eman ditu (2022 eta 2025). Azken urteotan, Kukai konpainiarekin (Orkara, 2022-2024) eta Jon Ander Urrestiren Eukaliptus obran aritu da biran, baita Hika Teatroaren Gazte piezan ere. Aldi berean, Eneko Gil, Laida Aldaz eta Matxalen Bilbao koreografoekin sormen-laboretegietan parte hartu du (2021-2023). Bere jardun artistikoaren ardatz nagusia Enbata proiektua da; bertan zuzendaritza, ekoizpena eta interpretazioa uztartzen ditu. Testuinguru horretan, Urraska piezan sorkuntza eta antzezpen lanak garatu ditu, eta Mamu laboretegiako esperientzien bidez ikerketa artistiko eta performatiboa lantzen jarraitzen du.





**RAFKE VAN HOUPLINES,**

**Mechelen (1996)**

*Ekoizpen eta zuzendaritza artistikoa,  
komunikazioa eta sare sozialak*

Rafke Van Houplines dantzari profesionala eta irakasle belgikarra da, Donostian bizi dena. 2014an hasi zuen bere ibilbide profesionala DANTZAZekin (Errenteria). Azken urteetan, OSA+MUJKA konpainian aritu da, eta dantzari izan da IZARO aberlariaren "Cerodenero" biran. Horrez gain, beste hainbat proiektutan parte hartu du freelance gisa, hala nola LASALA (Donostia), Christine Hassid Project (Bordele), eta ERTZA. Bere ibilbideak Europako hainbat eszenatokira eramane du, besteak beste, Idoménee opera, Lilleko Operarekin eta Berlingo Staatsoperrekin lankidetzan. Ikuspegi akademikoari dagokionez, Hizkuntzalaritza Aplikatuan (Ingelesa-Gaztelania) lizentziaduna da Vrije Universiteit Brussel unibertsitatean (Belgika); bertan, helduentzako eta atzerriko hizkuntzetan alfabetatze-maila baxua dutentzako ikaskuntza mistoari (blended learning) buruzko ikerketa garatu zuen. Gaur egun, Ingelesa Atzerriko Hizkuntza gisa Irakasteko (TEFL) Masterra egin du UNIR unibertsitatean. Komunikazio-arloan, Komunikazio Arduraduna izan zen Dantzaren, gaztelaniazko, ingelesezko eta frantsesezko dokumentuen itzulpena, transkripzioa eta berrikuspena kudeatuz. 2024ko irailaz geroztik, ENBATA proiektuaren Antolakuntza Artistiko eta Produktzio-zuzendariaren ardura du. Kargu honetan, konpainiaren eguneroko koordinazioaz gain, komunikazio estrategikoa eta sare sozialen kudeaketa ere zuzentzen ditu. Lanpostu horrekin batera, irakaskuntzan aritzen da bi esparrutan: alde batetik, dantza garaikideko klaseak ematen dizkie helduei, eta bestetik, ingeles irakasle gisa lan egiten du akademia batean. Horrez gain, dantzari freelance gisa jarraitzen du beste proiektu artistiko batzuetan.





## **OLATZ EGIA CANTON,**

**Donostia (2001)**

*Dantzari eta sortzailea*

Olatz Egia (2001, Donostia) sortzaile eta interpretea da. Txikitatik hartu ditu dantza garaikide kalreak Donostiako Murika eta Dantza eskolan eta 18 urterekin Burgoseko Ana Laguna kontserbatorioan hari zituen haren ikasketak profesionalak. Urtebete beranduago Copenhagen Contemporary Dance Schoolen ikasketak jarraitzea erabaki zuen eta bertan hari zuen bere ibilbide profesionala, Suedia eta Danimarkako hainbat proiektutan parte hartuz, hala nola 11dance konpainiarekin eta Copenhagen Dance Arts kolektiboarekin. 2024-2025 ean Dantzazeko interpretea izan zen, hainbat sorkuntza berrien eta biren parte izan zen. Gaur egun, bere bidea eraikitzen ari da egonaldi artistikoetan bere lana garatuz eta Enbatarekin sorkuntza berrian parte hartuz



## **AINHOA USANDIZAGA ESTARLOA,**

**Hernani (1994)**

*Dantzari eta sortzailea*

Ainhoa Usandizaga Estarloa Hernani jaio zen 1994ean. Burgoseko dantza eskola profesionalean ikasketak egin ondoren, Madrilera joan zen bere lehen dantza konpainian lan egitera. Madrilen hainbat koreograforekin ikasten eta lanean jarraitzeko aukera izan zuen, haien artean Ana Erdozain, Jesus Rubio, Amaya Galeote, Chevi Muraday... Ondoren Poliana Limaren konpainiako kide bilakatzen da, *Las cosas se mueven y no dicen nada* eta *Las cosas en la distancia* piezekin Europatik gira bat eginez. Honez gain Back Production produktorearen *Metamorphoses* obra interdisziplinarrean parte hartzen du dantzan, kantuan eta interpretazioan. 2019an Euskal Herrira itzultzen da, Donostiako Cielo Raso konpainiarekin lanean hari ahal izateko. Bertan Piedra (2018), Hãmaikã (2021) eta Euforia (2025) ikuskizunak eszenaratzen ditu. Aldi berean Gasteizko Proyecto Larrua konpainiaren *La casa vacía* eta Bilboko Almudena Perezen *Ultra Violet* piezetan ere parte hartzen du dantzari bezela. Horrez gain Enbata konpainia multidisziplinarreko partaide ere bilakatzen da Urrarka eta Garbigailua obrekin. Gaur egun, konpainia horietako interprete izateaz gain, espazio ez konbentzionaletarako bere lehenengo sorkuntza aurkeztu du: Bihar.





**MANU GAIGNE BEOBIDE,**

**Donostia (1995)**

*Musikaria eta sortzailea*

Donostian (Gipuzkoa) jaioa, 1995an. Musika garaikideko performance masterra amaitu zuen, Escola Superior de Musica e Artes unibertsitatean, Oporton 2021an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren arte ikasketak egiteko bekarekin. Honen aurretik Musikako Goi-Mailako ikasketak egin zituen Musikenen, perkusioan espezializaturik, 2018an amaitutakoak. 2019. urtean, Nano Drumming Grupo de Percussao taldearen akademiaren parte izan zen. 2024. urtean Garazi Navas musikariarekin batera "sonografia irudipenak" proiektua sortu du, Euskal Herriko espazio ezberdinen soinu eraldaketaren inguruko hausnarketa ardatz duen proiektu musikala. 2023. urtean Puy Barral poetarekin batera eginiko "Huesos" proiektu eszaiikoa aurkeztu zuen. Jone Amezaga dantzariarekin batera "Remedios Vals" pieza sortu zuen 2022 urtean, musika ta dantzaren arteko lenguaia aman-komunaren inguruan hausnartzen duena. Pieza hau azken hiru rteetako ibilbidearen emaitza izan da, 2020an "Zerbait.Noizbai.Nonbait" ikerketarekin hari zena. Interprete bezala hainbat talderekin jotzen du eta jo du, hala nola, Bilbao Sinfonietta, Sigma Project, Hatxe, Sarrabete, Haatik Dantza konpainia, Gasteizeko banda edota BOS. "La columna infame" antzezlanean edota Circo de Natal do Coliseuko musikaria izan zen ere



**XABIER MUJICA**

*Jantzi/ eszenografia aholkularitza*

Donostiako DAGET fakultatean arkitektura ikasketak amaituta, Bruselareko SHSH arkitektura eta eszenografia bulegoan lan egin nuen. Bertatik itzultzean arte eszenikoetan lan egiteko helburuarekin AEG zentruan neurria egindako eta ikuskizunetarako jantzien goi mailako heziketa zikloa burutu nuen. 2016an Dantzaz konpainian urtebete aritu ondoren niire kabuz lanean hari nintzen. Geroztik batipat dantza eta antzerki konpainiekin egiten dut lan, jantzi, eszenografia nahiz arte proiektuak diseinatu eta ekoitziz. 2017 urtetik Jaiotz Osa dantzari eta koreografoarekin OSA+MUJICA konpainiaren zuzendaritza elkarbanatzen dut, gure proiektu propioak garatuz eta beste artista batzuekin elkarlana bultzatuz.





**ETANOWSKI**

Argazkilaria

Renata L. Etanowski argazkilaria, bideo-errealizatzailea eta argitalpen-diseinatzailea da. Dantza garaikidean eta arte erzenikoetan espezializatuta dago. Polonian eta Ivasfot Donostian egin zituen argazkilaritza ikasketak. 2020an amaitu zen Diseinu Editorialeko eta Argitalpen Digitalerako Masterra Bartzelonan. Artelekun argazkigintzako workshop-ak eginez osatu zuen bere prestakuntza, Hellen van Meene, Bart Hess, William Selden eta Eduardo Momeñerekin. Bideoko formakuntza Larrotxenean borobildu zuen Laurent Defauche, Pablo Malo, Oscar Tejedor eta Txintxua Filmsekin. Aurrekoaz gain, Berlinen, Pool-Tanz Festival/Sarah Möller-ekin, "Arranging Movement in Film" ikastaroa gauzatu zuen. "Argazkigintza terapeutiko eta parte-hartzailearen laborategia", Ainhoa Vallerekin burutu zuen, Bilbon, eta LAV Madrilen. Euskal konpainia garrantzitsuekin lan egiten du: LASALA, Ora+Mujika, Lokke\_Olatz de Andres, Amaia Elizaran, Paula Parra, Kanpai, LaRutan, Iker Karrera, Myriam Perez, Mari Zaunka, Caminate/Ohiana Varela, Denis Martínez Roque, Enbata, Hika Testroa, besteak beste





Webgunea: <http://www.enbatabadator.eus/>

Instagram: [enbata\\_](#)

Facebook: ENBATA - Aldizkari bizia

Email: [enbata@enbatabadator.eus](mailto:enbata@enbatabadator.eus)

tel: 667813044